


Kazetaria soilik baino gehiago



Joxe AZURMENDI

Filosofoa

Joan Mari Torrealdai kazetaria soilik baino gehiago da, eta gehiago ere izanez da kazetari. Pentsalari kritikoa da, doktorea da soziologian, etab. Jakin-eko denok gara nolobait idaztera aldizkariaren inguruan etorriak. Baina gure artean inork izan badu kazetari sena eta kazetari estilo naturala luman, Joan Mari izan da hori. Horregatik izan da urte guztiotan, eta da orain ere, gure zuzendari. Eta gaur haren ohorapenak denok ohoratzen gaitu.

Kazetari estilo argia eta zuzenekoa da Joan Marirena. Kuriosoki, urruntasunean Rikardo Arregi gogoratzen du, hastapen gazteetako adiskidea. Rikardoren antzera, orobat, Joan Mari ere albistegiko kazetaria baino gehiago informazio gogoetatukoa da. Analitikoa, estiloan bezala pentsaeran. Estilo hori berak artikulu laburretik tesi doktorala izan duen zentsura frankistaren ikerketaraino problemarik gabe heda lezake. Praktiko da. Testu garbi bat ateratzen da beti haren lumatik, edo haren ahotik — edo haren konputagailutik orain. Estiloa pertsona baita, aspaldi esana dagoenez.

Gure historiatxoak eta bere printzipioek

ezarri dioten traiektorian, Joan Marik, kazetaritzan bertan ere, kazetaria soilik baino gehiago izan behar izan du: gaztetxorik hasi eta gaur arte, urte askoan ikusi dugu kazeta zuzendari. Horrek gure hizkuntzan eta baldintzetan esan gura du, proiektuen diseinatzaille, lan ekipoen kudeatzaille, produktu txikien enpresari eta miseria handien bankari askotan izan behar izaten duela. Izan ere, euskarazko kazeta baten zuzendaria kazeta sortzaille edo birsortzaille, birregituratzaille, finantzari, saltzaille, auzitegien aurrean defendatzaille, etab., etab., multiofizio konplexu bat izan ohi da. Lan horietan ere Joan Mariren dohainak estiloaren berak dira: proiektuaren definizio garbia buruan, helburu zehatzak eta helbideen errealismoa, kalitatearen ardura zorrotza produktuarentzat, lankideen gidaritza bat kasi ohartzen ez dena, efikaza, harpidedun eta irakurleen arreta, inguruaren behaketa, euskarazko beste proiektuen terrenoak ez inbaditzea, euskal mundu osoarekin solidaritatea.

Esan dezagun, bere talentua eta ahalegina aparte, Joan Marik zori argizkoa ere gozatu

duela bere bilakabidean. Lagun eta lankide izan ditu Karlos Santamaria, Rikardo Arregi, Joxemi Zumalabe, Martin Ugalde, Torrealdairen ohore egun honetan gogoratuak izatea merezi duten izen sakratuak euskal prentsaren gerraosteko historian.

Laguntzaile onak izan baditu, bera ere beti laguntzaile handia izan da Joan Mari. Hasteko, aipatu izen horietxen lagun eta laguntzailea: Santamaria, Rikardo, Joxemi, Martin Ugaldereña, bizi ziren artean horien proiektuena, eta horien memoriarena gero. Baina baita ere, esaterako, Bilboko Anaitasuna aldizkariarena frankismoko azken urteetan.

Azken urteetan berezi-bereziki Euskaldunon Egunkariaren alde ipini zituen bere dohainak eta ahalak, burua eta bihotza: aurrena Egunkaria Sortzeneko harremanetako taldean aktiboki jardunez, Martin Ugalderekin batera; gero Kontseilu Editorialeko buru bezala, eta Administrazio Kontseiluko lehendakari hurrena. Eta kargu honetan eraman zuen guardia zibil espainolak, denok gogoratuko duzue irudia, eskulotua eta burua estalita itsumustuka, gaizkin arriskutsu

bat bailitzan. Bernardo Atxagarena dela usate dut ideia: irudi oilakiarazgarri horretan jende askok ikusi du bere burua, Euskaldunon Egunkaria, euskal kultura guztia, Joan Mariren pertsonan pertsonifikatua.

Horregatixe eraman zuten: kazetaria soilik baino gehiago delako. Euskarari egiten zaizkion irainen eta zigor eta injustizien salatzailea delako. Euskararen askatasuna eta bizia defendatzen duelako. Euskararen langile delako, militantea eta profesionala. Azkenean, euskararen Amaiur honetan, edozein euskal kazetari kazetaria soilik baino askoz gehiago da. Eta hori, dirudienez, poliziak ulertu du ongiena.

Baina juez eta polizia espainol batzuentzat susmagarria den hori guztia, bihotzetik eskergarri eta ohoragarri delako guretzat, Joan Mari Torreal dai Rikardo Arregi Sariarekin ohoratuz, solidaritasuna erakusten diegu hari eta haren epailagun injustuki auziperatuei, eta familiari; eta Euskaldunon Egunkaria ohoratzen dugu, euskal kazetaritza guztia, eta geure buruak, Joan Mariren pertsona pertsonifikatuak nolabait. Zori argitsu, beraz, geroan ere, eta eskerrik asko.